



berria

Asteartea
2007ko irailaren 25a

Ezkutuko harribitxia

EKAIN ROJO
Donostia

Bizkaiko Enkarterriko Haranetan Europako lur azpiko altxorrik handienetakoa dago. Torca del Carlista izeneko leizea turismo irrikaren jomuga izatearik urrun dago alabaina, nekez hauteman baitaiteke Ranero mendilerroak honoan ezkututzen duen aberastasuna. Espeleologia ikertzaileen eremua da soil-soilik, eta azken urteetan zientzialarien kutuna bihurtu da gainera. Izan ere, lur azpiko ezkututzen duen munduko haitzulorik zabalenetakoa da. Esaterako, San Mames bezalako zazpi futbol zelai sartuko lirarteke barnean.

1957ko abenduan egin zuten Torca del Carlista kobazulora lehen espedizioa, eta orduz geroztik, makina bat ahalegin izan da kareharri eta dolomita harrien artean, milioika urteko denboraren joan-etorriak utzitako aztarnak ikertzeko. Hala ere, orain arte argitaratutako argazkiak bakanak ziren, eta bizkaitar eta euskal herritarrentzat ezezaguna zen Karrantzako lurretan dagoen leizea.

Zientzialariek bakarrik goza zeza-keten ikuspegia denen eskura izan zedin, beste espedizio bat antolatatu du asteburuan espeleologo talde batek.

Torca del Carlista leizea Europako lur azpiko zabalena da. Espeleologo talde batek estreinakoz Kobazulo handiko argazkiak atera ditu.

Jabier Lesen gidaritzapean, Kobazulo handiko argazkiak atera dituzte, eta lehen aldiz ikusi ahalko da, horri eskerrak, haitzuloren handitasuna. «Ez zen aurretik argazkigintza tresneriarekin inor jaitsi, kobazuloari argazkiak ateratzeko», argitu du Lesek. Nahiz eta inguruaren berri izan, jendeak bere begieiz ikusi nahi zuela uste du espeleologoak.

Ranero mendi tontorraren ia gailurrean dago leize-zuloa, eta hortik 340 metro jaitsi ziren larunbatean, sakontasun handieneko eremura. «Konplexua da, lur azpiko argazkigintza oso teknikoa delako, eta baldintza hauetan askoz ere gehiago». 150 metro soka bidez jaitsi zituzten, eta horietatik 90 metro paretak ukitu ere egin gabe. Airean ur tantek sortutako partikulek argazkiak ateratzea eragozten zutela dio. «Kobazuloan batetik bestera ibiltzea oso zaila zen, batez ere pisua eramateagatik, eta orekari eusten ahalegin handiak egin behar zirelako».

Alfontxo Antxia espeleologia zientzia elkarteko sei kide eta Durangoko GEMA taldeko partaide batek egin zuten lur azpiko lana, Lesen aginduetara. 60 kilo material garraiatu behar izan zituzten argazkiak atera ahal izateko, argazki tresneria, sokak eta ainguratzea aintzat hartuta. «Argiztapena egin ahal izateko, flash argi izugarria erabili behar izan dugu, eta batera bereziak, irudiak argitu ahal izateko». Argazkiak ateratzeko modua konplexutasunez beterikoa da bere hitzetan: «Pertsona bakoitzak flash berezia bota behar zuen puntu zehatz batera, eta pixkanaka-pixkanaka argiztatu, irudiak bere osotasunean agertu ahal izateko».

MUNDU OSOKO IKERTZAILERAK. Munduko bazter guztietako zientzialariak erakarri izan ditu Karrantzara leizeak. «Euskal eta munduko espeleologia-rian mitoa da Torca del Carlista». Lesen esanetan, lur azpiko azterketan



Torca del Carlista kobazuloaren handitasuna ikus daiteke argazkian. JABIERLES

nekez ikusi daitekeen hedadura du. Halaber, Bilbotik ordubetera egotea nabarmendu du, eta ordu erdian bertara iritsi daitekeela. Behera jaisten 12 ordu eman zituen iragan larunbatean lan taldeak. «Lehen aldiz joan zirenean, hiru edo lau egun emango zituzten leizearen barnean, eta eskailera mekanikoan jaisten ziren goitiko soka batek eutsita; zailtasunak ikaragarriak ziren».

Estalaktiten, antzinako formen eta zutabeen argazkiak atera zituzten, urak milioika urtetan kareharri eta harri dolomitetan egindako sartu-irtenaren oroigarriak. Kobazuloak Euskal Herrian ez ezik, mundu mailan ere ospea duela dio espeleologoak. Bizkaiko Aldundiaren laguntzaz liburu batean argitaratuko dituzte lur azpiko argazkiak, eta denon eskura izango dira horrela.



Torca del Carlista kobazulo handiaren ikuspegia. JABIERLES